

II.mundu gerra

Sekuentzia

Helburuak:

- II.mundu gerraren bizipenak hobeki ezagutu Euskal Herrian
- Kulturen murgiltzea: Idazle baten ezagutzea
- Euskal Herria ezagutzea
- Euskal Herriko historia: okupazioa eta frankismo garaia.
- Hizkuntzaren lanketa: Aditza, Erran moldeak, Sinonimoak, Adierazpena

BUKAERAKO PROIEKTUA: Gutun bat idatzi, Alemanian preso den familia kide bati, edo Alemaniatik Euskal Herrian den familiari idatzi.

Ondotik, gutunaren ahozko grabaketa egingen da.

ANBROXIO-ENeko BIDEgAIN

Egin ezazu autorearen biografia tipi bat



.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

.....

.....

.....

.....



AZALA :

1) Zoin argitaletxerekin idatzi zuen liburua ?

.....

.....

2) Irudia begiratzuz, zein izan daiteke liburuaren kontestua? Istorioarentzat pista batzuk ematen ditu? Zein?

.....

.....

.....

.....

4) Zer erran nahi du zure ustez tituluak ? Zure interpretazioa proposa ezazu.

.....

.....

.....

.....

[illegible]

.....

.....

.....

.....

.....

Idatziaren ulermenak

Koxepa:

1-Joanesek zein lagunekin pasarazten ditu errefuxiatuak?

.....

2- Mugalariek Nafarroako zein herritara joateko asmoa dute? Lortzen dutea?

.....

.....

3-Nor da Koxepa?

.....

Graxi:

1-Nola deitzen da AEKko klaseetan beti lehena den adineko emaztea eta bere istorioa Kattalini kondatuko diona?

.....

2-Nor da Graxi?

.....

3-Nolaz harrapatua izan zen Graxi?

.....

.....

Eusebio

1-Kattalin norekin doa ostatura?

.....

2- Zer gertatu zaie Joanes eta Eusebiori mendian? Zaurituak izan ziren?

.....

.....

3-SS-ek Joanes harrapatu zutela ikusirik, zer egin zuen Eusebiok? Dituzun xehetasun guziak eman itzazu.

.....

.....

.....

ANBROXIOREKIN HIZKUNTZA LANTZEN

GRAXI kapitulua

1. Azpimarratuak diren hitzen sinonimoak idatz itzazu.
2. Testuaren bi lehenbiziko paragrafoak iraganean idatzi (“...beldur baita.” arte).
3. Urdinez azpimarratua den erranaldia “nahiz eta” forma erabiliz, berridatz ezazu.
4. Ondoko aditzak, Nor, Nor-Nork ala Nor-Nori-Nork denez idatz ezazu:

- DITU:.....
- ZAIZKIO:
- ZEN:.....
- DUTE:.....
- BAITA:.....

Jadanik ilundua du Kattalin gau eskolara **heltzen** delarik. Klasea **oren** laurden baten buruan hasiko zaio. Gaurkoan ez ditu bere lanak biziki **aitzinatu**. Ez ditu batere aitzinatu, hobeki **erran**... Baina damu zen halako egun eder bat etxe zokoan, liburu eta **noten** artean igerika iragaitea. Ez du apaintziarik ere urrikirik egunaren zatirik handiena mendian **iraganik** eta amatxirekin solas batzuk trukaturik.

Eta horra hor, gure Kattalin, klaseko **tenorean** baino zenbait minutu lehenago, kurtzorik batere prestatu gabe, bi ore-nak zerekin beteko dituen ez dakiela. Bertzenaz ere, ez daki zein ikasle etorriko zaion eta zein ez. Bezperako ariketak ber-rriz proposatzen ahal lituzke jin ez zirenak agertzen balitzaiz-kio. Baina ikasle xintxoenek bezala klase bakar bat hutsegiten ez dutenak asper litezke... **Gogoetan** ari da, kadiran **jarririk**, zangoak luze luzea, ohartu gabe minutuen orratza itzultzen ari dela. Ez du klasearen hasteko gogorik. Bereziki ikasleak bezperan bezain **tuntunean etorriko** zaizkiolako beldur baita.

—Gauon Kattalin!

Jackie da. Beti tenoreko ttanko etortzen da klasera. Gelako zaharrena da. **Aitamek nahiago izan zioten frantsesa irakatsi, berek euskara hobeki baldin bazekiten ere.** Gazte denbora guzia **Parisen iragan zuen eta berrogeita zazpi urtetan itzuli zen Euskal Herrira.** Euskara ikasi behar zuela erabaki eta

Testu ulermena: Buchenwald

1- Noren bila doa Kattalin geltokira?

.....

2-Nolakoa da Gérard Euskal Herrira heltzean, harremanen aldetik? Eman hiru adjektibo.

.....

.....

.....

.....

3- Nola deitzen dira kontzentrazio esparruko lo egiteko etxolak?

.....

4-Testuak hala dio: “Joanesez berehala ulertu zuen ere, zorririk ez zuela behar jantzietan eta larruan”. Zergatik ?

.....

.....

.....

5- Zein forma geometrikoak bereizten zituen preso motak? (politikoak, homosexualak, ijitoak, tziganoak...). Aldiz juduek, zer zeramaten?

.....

.....

.....

HITANOA lantzen 126.or

Ariketa: ondoko orrialdean hika diren formak atzeman eta zuka pasa itzazu.

–Bazkal bageneza? Zer zaizue?

–Segur, ez dun goizegi izanen; gosea pizten hasia zaidan

–Sophie-k bere adostasuna agertzen du.

Ez dira lekuko kozina proposatzen duen jatetxera joaiten. Sophie-k nahiago du “arriskurik” ez hartu eta ezagutzen duen zerbait jan. Pizzeria bat hautatzen dute. Kattalini berdin zaio, Euskal Herriko berezitasunak ezagutzen baititu eta duen gose-arekin italiar otordu bat ez baitzaio gaizki etorriko.


–On dagizuela!

Xerbitxariak pizza bana ekarri die. Jesturik eta jendetasun-keriarik gabe lotzen zaio bakoitza bereari. Sophie-k berea er-ditaratua duelarik, asetzen hasia baita, isiltasuna hausten du.

–Erran, Kattalin, hire aitatzik ez zinan, hain segur, gaur guk bezalako otordu ederrik gain hartan!

Gérard-ek aurpegia beheititzen du eta eskuak kopeta gainean gurutzatzen. “Haste, berriz ere, betiko musika...” egiten du bere baitan.

–Arrazoi dun, arrazoi. Ez zinan leher eta zapart egiteko arrisku handirik, segur ezetz. –Baina Kattalinek Gérard-engana du begiratzen, Sophie-k galdera pausatu duelarik ihes egi-tera utzi duen begitarte nardatuaz ohartu baita. Ez zaio in-porta, entzun beza, gisa guziz ez baitu hauturik.



Hotzarekin batera, gosea zuten partida, herio zelaietako presoek. Udan bederen hotzak joaiten ziren; gosea ez. Goize-tan, 5etan, gosaritarako, ogi xerra ttipi bat emaiten zieten. Joanesek ez zuen haren perekatzen denbora handirik xahu-tzen. Ikimiliklik irensten zuen, lagunak bezala. Bi klaska nahikoak ziren haren...

GUTUN FORMALAK

Gutun hauek **edozein erreklamazio, jakinarazpen, eskaera eta abar** egiteko erabiltzen dira. Horiek itxura zaindua izan behar dute, mezua hartzailearengana argi eta garbi irits dadin.

1. EGITURA

IGORLEAREN DATUAK	HARTZAILEAREN DATUAK
GAIA:	DATA
HASIERAKO AGURRA:	
SARRERA TESTUA	
BUKAERAKO AGURRA	SINADURA
OHARRAK	

GOIBURUA

- IGORLEAREN DATUAK:** elkartearen logotipoa, elkartearen izena, elkartearen jarduera, helbidea (kalea, zenbakia etab.), posta kodea (zenbakiz), herriaren izena (letra larriz) eta herrialdearen izena (letra xehez, parentesi artean), telefono zenbakia, fax zenbakia, helbide elektronikoa, erregistro zenbakia.
- HARTZAILEAREN DATUAK:** enpresa, erakunde edo entitatearen izena eta, dagokion kasuan, jasotzailearen izen-abizenak, kargua eta helbidea adierazten dira. Hartzailearen izenaren ondoan ez da beharrezkoa jaun edo andrea idaztea.
- GAIA :** Gutunaren mamia azalduko da bertan, oso era laburrean. Bi edo hiru hitzez adieraziko dugu zein den gaia. Adibidez: **faktura okerra**
- DATA:** *Durango, 1983ko martxoaren 7an* edo *Durango, 1983ko martxoaren 7a.*

5. HASIERAKO AGURRA

NEUTROA	FORMALA
Jauna:	Jaun agurgarria:
Jaun hori:	Andre agurgarria:
Jaunak:	Jaun-andre agurgarriak:

GORPUTZA

1. SARRERA

Sarreraren mezuaren aurkezpena egingo da. Horretarako, esaldi/parafo labur bat erabiliko da, gutuna kokatzeko gaia aipatzen duena.

2. TESTUA

Zati horretan, gaia edo arazoa azaldu eta garatu egiten dira. Sarreraren azpialdean izango du hasiera, aparteko lerroaldean.

Biziki garrantzitsua da gutunaren edukiaren egitura, garrantzi handiena edo zehaztasun handiena duenetik hasiz, xehetasun eta berezitasun gutien duenarekin bukatuz.

OINA

1. BUKAERAKO AGURRA

Zein bukaerako forma ezagutzen duzu?

2. SINADURA

3. OHARRAK

Zenbaitetan, gutunari erantsi beharreko informazio gehigarria izaten dugu: eranskina, agiria, faktura... Horrelakoetan, informazio horiek guztiak gutunaren behealdean adieraziko ditugu, "oharra" hitzaren ondoren. Usu latinezko laburdura hau erabiltzen da:

PS: post scriptum

Ariketa : Gutun formal baten adibidea sor ezazu

LAGUNARTEKO GUTUNA

Lagunarteko gutunetan idazle eta irakurlearen arteko harremanak (osaba-izeba/iloba, adiskideak, senar-emaztegaiak...) eta helburuak (goraintziak bidali, zoriondu, dolumina eman, maitasuna agertu...) ugariak izan ahal dira, ugaria den bezala gutun mota hauek izan dezaketen edukia, egitura e.a.; baina badute denek ezaugarri bat: irakurlea ondo ezagutzen du gutuna idazten duenak eta, horregatik, estilo *naturalagoa*, lasaiagoa erabiliko du; bestelako gutun formaletan erabili beharreko formulismoak: norbere burua aurkeztu e.a.baztertuz.

EGITURA

	Tokia eta data
Hasierako agurra:	
Sarrera	
Gutunaren mamia osatuko duen gertaeraren berri ematen da.	
Bukaeran, konklusio moduko zerbait edo gaiarekin lotura zuzenik ez duen bestelako zerbait.	
Azkenik, goraintziak, agurra, besarkada...	

LAGUNARTEKO GUTUNAREN BALIABIDEAK

Hasierako agurra

Hauek erabilienak dira; gutun mota honek era guztietako agur pertsonalizatuak onartzen ditu, pertsonarekin dugun harreman konplizitate eta konfiantzaren arabera.

Anaia maite hori
Lagun laztan hori \ horiek
Egun on lagun, zer moduz?

Bukaerakoa

Hasierako agurrari buruz esandakoak honako ere balio du

Beti zure adiskide
Besarkada batez agurtzen zaitut
Besterik gabe agurtzen zaitut
Zure lagun min honek agurtzen zaitu
Zure seme maiteak agurtzen zaitu
Musu batez agurtzen zaitu

EMOZIOEN HIZTEGIA LANTZEN

EMOZIOEN HIZTEGIA			
SAILKAPENA		DEFINIZIOA	FAMILIA BEREKO KIDEAK
Emozio negatib oak	Haserrea	Gutxiago sentiarazten nauen nire aurkako –edo nirea den zerbaitetikiko– irainak edo erasoak sortzen duen emozioa, erreminaren, amorruren eta suminaren bidez adierazten dena.	Amorrua, haserre bizia, sumina, mindura, amorrazioa, ernegazioa, herra, errabia, tentsioa, aharra, kolera...
	Beldurra	Arrisku fisiko ustezko edo erreal baina hurbil, konkretu eta suntsigarri batek sortzen duen emozio bizia.	Ikara, izua, sarrakioa (beldur handia), lastura, sustoa, fobia, sosegu eza...
	Tristura	Konponbiderik gabeko galera edo ezbehar batek sortzen duen sufrimendu psikologikoa.	Depresioa, frustrazioa, etsipena, atsekabea, pena, mina, ezkortasuna, melankonia, bakardadea, maitemina, herrimina, gogoeza, abulia...
	Antsietate a	Mehatxu ezezagun existentzial batek sortzen duen ezinegon larria.	Estutasuna, larritasuna, itoaldia, estresa, ardura, egonezina, artegatasuna, urduritasuna, grina...
	Lotsa	‘Ni’ ideala nolakoa izan litekeen barneratuta izanda, haren arabera bizi nahi izatean porrot egiteak dakarren sentimendua.	Erruduntasuna, auzo-lotsa, herabetasuna, ziurtasunik eza, apaltasuna, ahalkea, lotsa gorritzea...
	Gorrotoa	Pertsona, gauza edo fenomeno gogaikarri batetik hurbil egoteak sortzen duen hura saihesteko gogo bizia.	Mespretxua, gutxiespena, biguina, garraztasuna, ezinikusia, antipatia, gaitzespena, nazka, bekaitza...
Emozio positib oak	Poza	Pertsona bati zerbait atsegina gertatzen zaionean sortzen den gogobetetasun emozioa.	Poztasuna, bozkarioa, poz bete, euforia, alaitasuna, bizipoza, gozamena, plazera, dibertsioa, gogobetetasuna...
	Umorea	Alaitasuna sortzen duen pertsonen arteko komunikazio mota bat. Jendearengan barrea eragiteko gaitasuna.	Adierazleak: irria, barrea, barre-argara, karkaila, barre-karkara...
	Maitasuna	Pertsonen arteko estimu sakonari dagokion kontzeptu unibertsala, atxikimenduarekin (lotura afektibo handia) eta adiskidetasunarekin (afinitatea) erlazionatutakoa (batzuetan, ez da elkarrekikoa izaten).	Estimua, adiskidetasuna, samurtasuna, bihozberatasuna, konfiantza, sinpatia, enpatia, maitemina, onarpena, errespetua, atxikimendua, eskerrona, miresmena, begirunea...
	Zoriona	Pertsona batek bere barnean sentitzen duen poz, alaitasun, gozamen, lasaitasun eta maitasun beteko egoera.	Gozamena, atsegina, lasaitasuna, barneko bakea, barne-poza, baretasuna...
Emozio ambiguo ak	Ustekabea	Espero ez duzun zerbaiten aurrean erreakzionatzen sentitzen den emozio laburra.	
	Itxaropen a	Nahi edo desiratzen dena beteko dela sinestean oinarritzen den emozioa.	
	Errukia	Beste pertsona baten sufrimendua ulertzea eta sentitzea, eta sufrimendu hori saihesteko eta gutxitzeko gogo.	

